

"EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA" liburutik
B. Latiegi/ D. Oñatibia
1982

IPARRALDEICOER! OITURA

Iparraldeko gure anaiek beren euskalkietan H'a bearrezkoa ba'dute, erabili dezatela euskalki aietan, bearrezkoa duten itz bakoitzean. Gu ez gera aiej H'rik kentzera joan, eta ez gera joango ere. Ez bjtez berak guri indarrean H'rik sartzera etorri. Bai! Badakit ez dirala etorri, eta badakit ez dirala etorriko ere. Baña Iparraldeko euskaltzajñen jokaerak ematen digu min; orainorain arte egoaldeko euskaltzaiñen artean "el batua" —ren aurkakoak geiago izan bait djra "el batua" —ren aldekoak baño: Amar, aurkakoak; zazpi, aldekoak.

Iparraldekoak H'a agoskatzen ba'dute, guk ez bait dugu agoskatzen! gañera, beste gauza bat ere gogoan artu bearra dala uste dut:

Iparraldeko euskaldunak, euskaldunetatik EUNETAN AMAR (%10) izatera ez dira irjsten. Gu, egotarrok, EUÑETAÑ LAROGEITAMAR baño geiago gera (%90 baiño geiago). Iñork zerbait ezartzekotan nork nori ekarrj bear lioke "zerbait" orj? Baiñan, beude pakean ipartarrak! Gu ez gera indarkerjz zirisartzearen zale. Badakit, bai, lurralde ajetako euskaldunjendeek ere orrelako zaletasunik ez dutela. Ez djtut euskaldun errikoj ajek buruan, nere barneñoaze au agertzerakoan.

Aipatu ditudan eunetako zenbakj oiek beste zerbait ere adierazi nai digute, nere ustez bejntzat: an eta emen Ilzorjan daukagula euskera. Baña iñun euskera salbatzekotan, emen salbatuko dala, Arantzazu'ko Billera artan bertan Lafitte'k esan zuan lez: Iparraldean alegia, Euskera galdua zala; jñun burua jasotzekotan emen, egoan, jaso bear zuala; eta gu, (egoaldekoak) aiengajtik (jiparraldekoengajtik) Euskeraren gorputz aulduari indarrez H'a txertatzen ez asteko (1). H'a, ordea, euskal erreboluzioaren sjnbolo plastikoa jzakj!

Gai oni buruz azalpen bitxi bat egjn zidan bein Azurtza'tar Joxejoakin injenie-ruak. "A" bat marraztu zjdan nere begien aurrean ingi zurigañean. Agaren eriza batean eun arroako arrj aundi bat, eta beste ertzean amarreko arrj txjki bat. "Nun dago or balantzapuntua?". galdetu zidan.

Arazoi osoa du Axurtza adiskideak. "El batua"ren gurasoek ordea, arri txiki-runtz jo zuten eta Benaparroa'ko euskera aukeratu zuten, euskaldun geienen, jaja euskaldun guztien eskubideak zanpatuta, izkera berri au sortzeko; a! ori bai, Benaparroa'ko euskerarj Prantzi'ko eta Españi'ko itzak eta erderakadak ugari erantsiaz! Ez da oker ibilliko, "el batua" euskalkjak ez baiña, Frantzera eta Gazte-

(1) Ona emen Lafitte berberaren itzak, Arantzazu'ko Biltzarrean Euskaltzaindiak erabili zuan magne-foietik Berrondo'tar Kepa'k jasoak: "H, galdua emen orain... Lehen? ori ez da arrazoa. H gal- tzen asi da (Iparraldean ere); Kontsonante ondoren, ken!... eta bai bokal artean ere... Ustaritz'en, Baigorri'n, eta itsasegian ere. Eskuara ere hiltzen doa. Nunbait salbatuko ba'da hemen izanen da (Egoaldean). Beraz, danok saia behar ginuke hemengoaren alde (emengo Euskeraren alde): han- goak ota emengoak. Ník ez nuke H sartuko hemen. Gu (Iparraldean) hiltzerea goazi. Hiltzera doan ontzi bati ez lotu! Bear ba'da ník ez dut osperantzarik bihotzean... (baña esperantzarik izateko- tan), hemendik (Egoaldetik) behar da . (Euskera XII 1968, 224 orria. Irakurle: (...) artean sartuta- ko itzak nereak dira. Magnetofonean zatika artutako izketaren zentzua argitzeko ipiñiak).

lera baturatuaz sortutako lzkuntza Batu berri bat dala djona! ijadjtu laterazko eta latiñezko joskerak ere, baiña gazteleratik eta frantzesatjk artuak, "el batua" sortu zutenak ez bajt zekiten laterarik.

Beste gauzatxo bat ere asan nai nuke. Iparreko euskaldunak %10 besterik ez dirala, geinaz, ikusi dugu. Gañera,

1.—Ipartarrek ez dituzte idazten djtuzten H danak agoskatzen.

2.—Ez djtuzte ango idazle danek H'ak toki beretan idazten.

3.—Beraz, H asko alperrikakoak dituzte.

4.—Eta, azkenik, ipartar askok (jtxasertzekoek adibidez), EZ DUTE BATERE HiRIK AGOSKATZEN.

Zenbat ote dira H'a agoskatzen duten euskaldunak? Eunetan bost (%5)?

Zalantzarik gabe esan genezake, Iparraldean H'a erabiltzen dutenak baiña askoz geiago dirala emen "I" eta "A" ren artean "X" bat ("ogixa". "begixa". "Azkoitixa"...) edo "Y" bat sartzen dituzten euskaldunak ("ogiya". "begiya". "Donostiya"...). Askoz eta askoz geiago. Gogoratu al zaje euskaldun ojei "X" ori edo "Y" ori indar bizian gañerako euskaldunoi arreraztea? Zer arrazoi dute orduan Euskaltzaindjak eta "el batua" zaleek guri indarrez Iparraldean bertan seguru ez dagoan H'a sartu nai izateko? Bat bakarra: H'a euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa izatea!

H'a Iparraldean ere eskier, (seguru), ez dagoala esan dut. Ez bide da bejntzat oso gauza argia H'aren eskiertasuna. Gai orri buruz "Euzkadi'ko Iparraldean emezortzi bat H naikoak ditut" esan ornen zion Iratzeder ipartarrak Akesolo'tar Lino Euskerazaintzako Lendakariarj. Orrelako zerbait esan ornen zion Euskaltzaindjari ere, Iratzeder'ek berak. Ain zuzen Iratzeder'en H'en auzi oni buruz ona zer idatziberri didan Zatarain'ek:

a) Iratzeder'ek Euskaltzaindjari zenbat H eskatu zizkion ziur jakitearren, Euskaltzaindjari idatzi ziola berak (Zatarain'ek).

b) Euskaltzaindjaren izenean Lizundja'k erantzun ziola, eskutitzez. (Lizundia'ren gutun onen fotokopi bat bidali bait dit Zatarain'ek, lkus irakurle zer dion euskaltzaindjaren ikurradun ingian idatzita dagoan

Lizundja'ren eskutitz orrek):

"Hemen bidaltzen dizut Iratzeder'en kopia. (Iratzeder'ek Euskaltzaindjari aurkeztu zion idazkiaren kopja.)

Ikusiko duzu zerbait falta dala: zerrendaren bukaera; baiña hori ez dut arkitu, eta behar bada ez zuen emango."

c) Ljzundia'k aipatzen duan kopia ortan, 15 itzetarako eskatzen du Iratzeder'ek H'a baiña lau auek bakarrik agirj dira bertan idatziak: "Behi, Nahj, Zahi, Ohi".

d) Iratzeder'en 15 itz oiek zein ziran era bat jakiteko, Iratzeder berari idatzi ornen zion gero (Zatarain'ek), eta Iratzeder'ek itz zerrenda au bidali:

"AHI (Gipuzkeraz, "aj": iriñez eta esnez egindako janaria). AHUL, (Gip., aul). AHUR, (Gip., eskua bjlduz egin diteken txokogunea). BEHI, (Gip., bei). BEHIN, (Gip., bein). BEHAR, (Gip., bear). IHAR, (Gip., igar). IHARDUKI, (Gjp., jardun). IHAURRI, (Gip., zabaldu; adibidez belarra). IHAUTE, (Gip., iñaute). NAHI, (Gip., nai). SEHI, (Gip., sein, mjrabre). XAHU, (Gip., txau, garbj). ZOHI, (Gip., zotal; belar-dun lurpuska). OHI, (Gip., "oi". "oitu").

Amabost itz guztira.

"Bertalde —dio Iratzeder'ek Zatarain'eri bidalitako eskutitz ortan—, HAU, HORI, HURA, "H" ekin ematea ongi ljtzake, bainan ez beharrezkoa".

e) Amabost itz bakarbakar ojentzako Euskaltzaindjari H'a eskatu ondorean,

auxe esan ornen zuan geroago billera batean Iratzeder'ek, Zatarajn'ek jdazten didanez: "H bat askj ginuke, "nahjz". "zu ikusi nahjz etorri najz" esatekoan "naiz" "najz" ez esatearren".

"Guk ordea "najez" esaten duguta, "zu ikusj naiez etorri; naiz" esaterakoan "kakofoni" edo "soñu zakarrera" jausteko arriskurjk ez dugulako, guretzat H bakar ori ere alperrikakoa da". esanaz amaitzen du Zatarain'ek bere eskutitza (2).

Zatarain'ek djon bezala guk ez dugu "H" bakar orren bearrik. Aitortu dezagun ordea Iratzeder'en goratarrez, onek ez zuala "H" bakar ori guretzat eskatzen; ipartarrentzat bakarrik eskatzen zuala. Ez Euskalerrri osorako sortu litekean Euskera Bateratu batentzat, ez; soilki Iparraldeko Euskerarentzat baizik.

Eskerrikasko Aita Iratzeder! Zentzu onaren alde eta Euskeraren alde egoki jokatu zera. Milla esker.

Agian, Aita Kardaberaz zaarrak ere, berak uste baiño egi aundiagoa esan zigun H'a euskalduna ez zala oles egin zuanean, jatorriz Iparraldeko Euskeran ere izki ori ez bait da seguruaski euskalduna. Strabon'ek eta beste antziñako idazleek gure errien eta jendeen izenak ematerakoan ez zuten H'rik erabiltzen. "H" a atzerritik etorria da. Ez frantzertatik, frantziarrek ez dute ba "h" rjk agoskatzen. Nere ustez izki ori Inglannderitik etorria dugu, ez bait dugu aantzi bear erdiaroan gure IparLurraldeak Inglannderriko erregearen Jauntzapean egon zjrala mende luzeetan, eta Inglannderriarekin arreman aundiak jzan zituztela (3)

Nere iritzikoa agertzen da, gutxi gorabera, Urrestarazu'tar Andoni, "Umandj" ere:

"La letra H que solamente ha sido utilizada hasta ahora en nuestros dialectos norteños, como una intluencia más, según opjnamos, del o de los erderas, y que el "euskera batua" trata de generalizarla como presunto medio de unificación; pero siendo los que han venido empleando esa letra, con una gran diferencia, los menos en el conjunto de los euzkaldunes, parece lógico que fueran ellos los que la fueran abandonando, como ya lo habían empezado a hacer además, y como medjo mas fácil, más cómodo y más adecuado para llegar en ese nivel a una rápida unificación tan deseada por todos.

Para subrayar nuestro crjterio del origen erdérico de la H en el euzkera, copiamos aquí lo que dice Azkue en la revista "Euskera" de Euskaltzaindi "XVI Urtea, III zenbakia 1935 "beltza Garagarrilla". página 115: "4.ª Se vale (el libro de "Refraanes y sentencjas") mucho de la "h" pero, según creo, no porque la pronuncjasen sino por imitar a escritores castellanos. La prueba de ello es que varios vocablos los escribíeron a veces con esta letra, otras sin ella..." (Nik azpimarratua) (4).

Jatorriz euskalduna ez dan izki ori sartu nai digu orain Euskaltzaindiak indarra-bitarte; Iraultzalari artean iraultzaren ikurra izateko aukeratutako H'a!

(2) Zatarain'dar Anburtsi'k neri egindako eskutitza (11-11-81).

(3) 1152'an egin zan, Inglannderriko Endika II'a, ezkontzaz Baiona'ko Jaun. 1451'an irten ziran, betirako, inglanderriarrak uri artatik.

(4) "Euzkera", 19 or.